

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

365/2016 Foru Agindua, abuztuaren 2koa, onartzen duena Raúl Segura Arbaizarren behin-behineko izendapena, Arraia-Maetzuko Udaleko idazkari lanpostuan jarduteko, uztailaren 26tik abuztuaren 2ra (egun biak barne)

Arraia-Maetzuko Udalak atal honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen baten beharra daukala, adierazitako aldian Elda Sanmamed Soto korporazioko idazkaria ordezteko.

Horregatik, proposatzen du udal horretako administrari laguntzaile lanpostuan diharduen Raúl Segura Arbaizar behin-behinekoz izendatzea aldi horretarako.

Bat etorritz 1732/1994 Errege Dekretuaren 33. artikuluan xedatutakoarekin (uztailaren 29koa, Gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoa, beste errege dekretu honek emandako idazkeraren arabera: 834/2003 Errege Dekretua, ekainaren 27koa).

Kontuan hartuz Toki administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legearen 25. artikuluan xedatutakoa — 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, zeinak aldatu egiten baitu 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituena, 92.bis artikulua berria sartuz; artikulua berri horretan, toki korporazioetan langileak halabeharrez aldi baterako izendatu behar direnerako eskumen esparrua zehazten da.

1732/1994 Errege Dekretu horren bosgarren xedapen gehigarrian agindutakoa eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubideari buruzko Foru Arauak 40. artikuluan jasotako eskumenak betez (52/1992 Foru Araua), haien indarrez, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Raúl Segura Arbaizar behin-behinekoz izendatzea, Arraia-Maetzuko Udaleko idazkari lanpostuari dagozkion eginkizunetan jardun dezan haren titularra kanpoan dagoen aldian, 2016ko uztailaren 26tik abuztuaren 2ra bitartean.

Bigarrena. Izendapenak aurreko idatz zatian adierazi den aldirako soilik izango du indarra.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Arraia-Maetzuko Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 2a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SAENZ